

KONTROLIK GABEKO ABEREA BILTZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Konstituzioko 133.2 eta 142. artikuluek, Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. artikulua, Toki Ogasunak araupetzen dituen 1989ko uztailaren 4ko 5/89 Foru Arauaren 15 eta 18. artikuluek, eta 5/89 Foru Araua aldarazten duen urriaren 8ko 9/1998 Foru Arauak ezarritakoari jarraikiz, eta Tasen gaineko Lege Araubidea aldarazten duen uztailaren 13ko 25/98 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, hori guztia abereak inolako identitaterik gabe aske ibiltzen direnean edo osasun arauak betetzen ez dituztenean hartu egingo direla ezartzen duen 6/93 Legearen inguruan, Derioko Udalak kontrolik gabeko abereak biltzeagatiko tasa ezarri du, ordenantza fiskal honek jasotzen dituen aginduei jarraikiz.

1. artikulua. Xedapen orokorrak.

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, tasak ezarri eta eskatzen ditu inolako identifikaziorik gabe udalerrian zehar aske dabiltzan kontrolik gabeko abereak biltzeagatik, edota identifikazio ofiziala izan arren, unerik une indarrean diren osasun arauak betetzen ez dituztenak biltzeagatik.

2. artikulua

Ordenantzaren ezarpen eremua udalerrri osoa da.

3. artikulua. Zergapeko egitatea

Zerga ordaintzeko beharra sortzen da Udalak udalerrian kontrolik gabe aske eta inolako identifikaziorik gabe dabiltzan abelburuak bildu egin dituztenean, edota identifikazio ofiziala izanik unerik une indarrean dauden osasun arauak betetzen ez dituztenak, bai baten batek biltzeko eskaera egin duelako, bai animalien arduradunen egite edo ez egiteen ondorioz bildu behar izan direlako.

4. artikulua. Subjektu pasiboa

1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, baldin eta udalerrian kontrolik gabe ibiltzen diren abelburuak biltzeko zerbitzuaren onuradun badira edo zerbitzuak eragiten badie.

2. Kontrolik gabe ibiltzen diren animaliak biltzeko ezarritako tasen kasuan, aipatutako abelburuen jabeak zergapekoaren ordezkotzat izango dira. Hala eta guztiz ere horiek, hala dagokionean, onuradunen esku utz ditzakete kuotak.

5. artikulua

Tasak ordaindu beharko dituzte euren egite edo ez egiteen ondorioz abereak bilduarazi dituzten partikularrek.

6. artikulua.- Salbuespenak, murriztapenak eta hobariak

Salbuespenak edo bestelako zerga onurak emateko, aintzat hartuko da aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoa.

7. artikulua. Zerga oinarria

Zerga oinarria emandako kontrolik gabeko abelburuak biltzeko zerbitzua osatzen duen unitate bakoitzak osatzen du, eranskinean jasotzen diren baldintzetan.

8. artikulua. Kuota

1. Zergaren kuota eranskinean jasotakoarekin bat etorri onetsitako tarifak batera aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa izango da.

2. Kontrolik gabeko abereak biltzeko tokiko jabari publikoa hondatu edo narriatzen denean, onuradunak berreraikitze eta konpontzeko gastuen kostu osoa ordainduko du, eta zenbatekoa aurretik aurkeztu beharko du, egoki den tasa ordaindu behar izatean eragin gabe.

3. Kalteak konponezinak badira, suntsitutako ondasunen edo kaltetutakoen balioaren zenbateko balioakidea ordainduko zaio Udalari kalte-ordain gisa.

Udalak ezingo ditu barkatu osorik edo zati batez aurreko atalek aipatzen dituzten kalte-ordainak eta itzulketak.

9. artikulua.- Sortzapena eta zergaldia

Tasa sortuko da kontrolik gabeko abereak biltzen direnean.

10. artikulua – Likidazioak eta diru-sarrerak

Udalak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du, eta likidaturiko zenbatekoa eskudirutan ordainduko da, eranskinean ordainarazpen arau zehatz bakoitzerako ezarritako arauekin bat.

11. artikulua.- Tasak kudeatzea

Ordenantza honek araupetzen dituen tasen likidazio, diru-bilketa eta ikuskapenaren inguruko guztiari dagokionez, eta zerga mailako arau-hausteen sailkapena zein kasu bakoitzean dagozkien zehapenak zehaztea dela eta, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aurreikusitakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2017ko urriaren 24an eginiko bilkuran aldatu da, indarrean sartuko da 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarrean jarraituko du berau aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean. Ordenantza fiskal honetan aldaketa partzialik egitekotan, aldatu gabeko artikuluek indarrean jarraituko dute.

Zergaren arauketan aurrekontuei buruzko foru arauak edo zuzenean aplikatzekoak diren beste edozein arau edo xedapenek sartzen dituzten aldaketek, bidezkoa bada, dagokien adierazi gabeko aldaketa eragingo dute ordenantza fiskal honetan.

ERANSKINA

Kontrolik gabeko abereak biltzeagatiko kostua	
Langileria gastuak	16,33€ euro ordu eta pertsona bakoitzeko
Joan-etorriak	0,26€/km
Materiala (dardoak, xiringak)	81,66€
Abereak mantentzea:	
Azienda larria	
1. aberea:	32,66€/egun
2. aberea eta gainerakoak:	8,71€/egun/abelburu
Azienda xehea:	
1. aberea:	19,60€/egun
2. aberea eta gainerakoak:	5,44€/egun/abelburu
Ukuiua eraikitzen parte hartu ez duten udalak:	27,22€ gehiago eguneko, goian adierazitako prezioei dagokienez